

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onespena ematea aldatzeari maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Lurralde Historikoko dirubilletaren arautegi orokorra

Foru dekretu honen xedea da zorren helbideratzea gaitzea dirubilletan laguntzaile ez diren gordailu erakundeetan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak foru agindu bidez ezartzen dituen kasuetan eta baldintzetan.

Bestalde, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak foru agindu bidez ezartzen dituen kasuetan eta baldintzak betez, aukera egongo da zorren ordainketa zorpekoaren titulartasuneko ez den kontu batean helbideratzeko, baldin eta kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen badu.

Foru Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, arau hori beharrezkoa da laguntzaileak ez diren erakundeetan helbideratzea ahalbidetzeko, bai eta zorpeko pertsonaren titulartasunekoak ez diren kontuetan ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu bidez ezartzen diren kasuetan eta baldintzetan. Bat etorri proportzionaltasun printzipioarekin, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txosten laburtua eta Kontsulta Batzordearena aztertu dira, eta Batzordearenaren inguruko ondorioak kontuan hartu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Bakarra. Maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Lurralde Historikoko dirubilletaren arautegi orokorra aldatzea.

Maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Lurralde Historikoko dirubilletaren arautegi orokorraren 121. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

“1. Zordunek kapitulu honetan aipatzen diren zorren ordainketa helbideratu ahal izango dute dirubilletan laguntzen duten gordailu erakundeetan irekitako eta beren titulartasuneko kontuetan.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren foru agindu bidez, aurreko paragrafoan aipatzen diren zorren ordainketa dirubilletan laguntzaile ez diren gordailu erakundeetan helbideratzeko kasuak eta baldintzak ezarri ahal izango dira, bai eta ordainketa zorpekoaren

titulartasunekoa ez den kontu batean helbideratzeko kasuak eta baldintzak ere, baldin eta kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen badu.”

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA